

Heleta

Aurkibidea

Udalerria: Heleta

Sarrera



Nafarroa Behereko Arberoa eskualdeko udalerria. Mugak: iparraldean Aiherra eta Donostiri; ekialdean Iholdi, Armendaritze eta Donostiri; mendebalean Lekorne (Lapurdi), eta hegoaldean Iholdi eta Irisarri. Auzo nagusiak Garreta, Antxartia eta Heleta dira. Nekazaritza da bertako ekonomia jarduera nagusia (garagarra, artoa, bazkarako landareak, lekadunak, mahastiak; ardi azienda).

- **Biztanleak:** 709
- **Euskaldunak:** %27,94

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **12**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **12**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- IKER taldea

Hizlariak

Ttotte Ainciboure (1912-2012)



"Ttotte" Ainciboure Heletan sortu zen 1912ko urriaren 2an eta bertan bizi izan zen zerbitzu militarra egin arte. Ondotik, Arrutan plantatu zen hiru urtez bi asto garañorekin. Preso egon zen hamaika hilabetez munduko bigarren gerla garaian (1939-1945). Donapaleun Hôtel du Midi ostatua erosi zuen, eta garañozaingoan segitu zuen, bai eta zaldi-lasterketak antolatzen ere.

HEL-001 Hizlari ezezaguna (1961)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. 1912an sortu baxenafartar baten lehen 25 urteak (HEL-002/001)

Totte Ainciboure heletarra lanari lotu da 11 urtetan, Bastidako eskolan zertifikatua lortu bezain laster. Geroztik eta bigarren gerla mundiala etorri arte, lan eta esperientzia mota asko ezagutu ditu : herriaren laguntzaile ura ekarri zenean Heletako plazara (1927), bildotx hiltze, armada, gereñozaingoa.

2. 1939-1945 gerla eta gerla ondoa Donapaleuko gereñozain batentzat (HEL-002/002)

Ttotte Ainciboure, preso egonik libratu eta, ohartzen da mandoek ez dutela lehengo arrakasta. Alabainan, laborariak behorak saltzen dituzte trakturren erosteko. Gereñozaina hasten da orduan odoleko behor lasterkariekin

3. 1939-1945 gerla garaia Donapaleun bertan (HEL-002/003)

Beldur batekin bizi zen Donapaleuko jendea, herria alemanez okupatua baitzen. Demarkazio muga bertan izanez, Ttotte Aincibourek pasatzen zituen mutil gazteak beste alderdira.

4. Gerenozaingoaren hastapenak eta garapena (HEL-002/004)

1918an, Heleta Piarrestegiko nagusiak (Ttotteren aitak) aktibitate hori abiatzen du asto-gereño bat erosiz Poitou euskaldean. Denbora hartan asto-gereñoa eta behorraren kurutzamendutik sortu mandoek erabiltzen ziren lanerako eta arrakasta handia bazuten Frantzian eta Espainian barna. Bizpairu urteren buruan lau asto-gereño eta zamari gereño bat zituen Piarrestegiko nagusiak.

5. Mandoen salmenta (HEL-002/005)

Sei ilabetetan asto-gereñoak saltzen ziren Espainian bai eta ere Frantzian (Landesetan eta Drome departamendan bereziki). Erostenak Piarrestegira heldu ziren jakiteko mandoak zein etxetan atzeman zitzazketen. Erosi eta, kamiontraka eramaten zituzten.

6. Behorren estalaraztea (HEL-002/006)

Behorrek ez bazuen lehen aldian hartzen, bizpairu aldiz estalaraz zitzaiken. Bizpairu entseguek porrot egiten bazuten, zamari-gereñoarekin saiatzen ziren. Ekainaren 24eko berantenaz behar zuen behorrek ernari izan. Umea 11 ilabeteren buruan sortzen zen.

7. Asto-gereñoaren artak (HEL-002/007)

Gereñoak barnean atxikitzen ziren, ontsa bazkatuz eta ihautuz. Etxean berean ferratzen ziren herriko arotzarekin.

8. Britainiako zaldi-gereñoak (HEL-002/008)

Ttotte Aincibourek bere zamari-gereñoa Britainian erosten zuen. Baliatzen zen ere 18 ilabeteko beste behor ernari edo behokak batzu erosteko eta Euskal Herrian saltzeko.

9. Zaldi lasterkarien hazkuntza eta salmenta (HEL-002/009)

Asto-gereñozaingoa utzi eta, Ttotte Aincibourek odoleko behor lasterkariekin gustu hartu zuen. Hauen hazkuntzari lotu zen. Behorrek 18 ilabetetan saltzen zituen zaldi entrenatzailei edo ere inkanteetan. Saldu zaldia bost lehenetan agertzen bazen lasterkaldi batean, Ttottek prima bat hunkitzen zuen. Gaurregun, bere semeak aitaren segida hartu du.

10. Zaldi lasterkaldiak Donapaleun (HEL-002/010)

Ttotte Ainciboure buru, zaldi lasterkaldiak iragaiten ziren Donapaleun 1950 hamarkadan, De Saint Gemme jaunaren pentze handietan. Lasterkariak urrunetik heldu ziren beren zaldi eta karrosekin. Donapaleuko kantonamenduko jendea heldu zen horien ikustera : 1600 ikusleraino izan da.

11. "Hôtel du Midi" ostatua eta Donapaleuko merkatua (HEL-002/011)

« Hôtel du Midi » Donapaleuko aspaldiko hotel bat da. Merkatu egunetan bereziki, jende asko jiten zen hotel hortara edateko, jateko eta ere lo egiteko.

12. Besta Berri Heletan (HEL-002/012)

Musikariak Donibane Garazitik heldu ziren. Herriko gazteak beztitzen ziren herriko plazaren itzulia egiteko, oilarrak aintzinean jartzen ziren. Zernahi ikuslier etortzen zen Heletako Besta Berri ikustera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com